



Propaganda, desinformazioa, informazio gainezkatea. Arma sofistikatua eta hobetuak mende batetik hona era masibo batean erabiliak, estatu eta enpresariaren indarkeria publikoa ordezkatzen dutenak: disidente, manifestari edo grebalariei erailketa masiboa. Helburua berdina da, arriskutsuegia den jendetza esplotatuaren menperatzea. Demokratikoki gizarte otzan, despolitizaturiko eta tontoturiko gizabanakoak sortzen dituzte, hauek libreki pentsatu eta ekin dezaketela uste duten arren, benetan beraiei garunetan markaturiko bideak jarraitzen dituzte; horrela dena errazagoa da eta negozioak seguruago eta lasaigoak. Gezurra esaten edo iruzur egiten diguten bitartean, beraiei gezurrez egindako mozturro lazgarri baten atzean ezkutaturik dagoen kapitalismo hiltzaile erdi ezkutatu onar dezagun, aukeratzeko askatasunaren ilusioa, etab. Badaude zenbait gizon eta emakume muntai honetaz jabetzen dira eta ez bakarrik hori ekintzara pasako dira, ikusteaz aparte hauek aldatzeari ekiteko. Birus hauek, lo eragile arruntak beraian eraginik ez duelarik, zuzenki jasotzen dute munstro honen eraso zuzena, ez du hauen aurka bere aurpegia ezkutatu beharrik ezaguna baita hautentzat: Tortura sistematikoa, jipoiak, errepresioa, kartzela eta zenbait kasuetan heriotza. Era honetan da estatu kapitalistek bereziki sistemaren aurkako elementu hauen aurkako "dena-balio" duen espazio juridikoak sortzen dituztela. Terrorismoaren aurkako lege deitzen diete eta noski bere aplikazioaren xehetasunak ezezagunak biztanleriarentzat.

Greziako kasuan orain dela 2 urte eskas sortua izan zen. Fernando Burgoseko kideari, edo Karlosi edota edozein beste atxilotuei aplikatu dakiokeen legea da, Tesalonikako Europako Gailurraren aurkako manifestaldian parte hartzeagatik. Ez zara konformatzen aberatsek gobernaturiko mundu bidegabe eta sarraski zale batean bizitzeaz? Aldatu nahi duzu? Terrorista madarikatu bat zara.

Fernando eta Carlos atxilotuak Tesalonikan EBren aurkako ekintzengatik

Erakunde kapitalista supraestatala den Europar Batasunaren aurka protesta egin ondoren, Fernando eta Carlos, Burgos eta Madrileko militante libertarioak urrenez urren, espetxeratze prebentiboan sartu dituzte epaiketaren zain. 18 hilabetea itxarote bat izan daitekeena. Egotzi zaizkie:



Arma eta leherkariak edukitzea
Leherkariak jartzea
Indarkeria erabili den manifestaldi batean parte hartzea
Istiluak
Bake sozialaren hausketa
Jabegoari egindako kalteak: publiko zein pribatu Suteak

Kargu hauetatik 4k 5 urte baino gehiagoko kartzela zigorrarekin zigortuak daude. Besteak 3tik 5era. Itxura denez epaileak "erakunde armatuaren partaide" izatea egotzi nahi die, nahiz eta hau oraindik formalizatu gabe egon. Terrorismoaren aurkako legea orain dela 2 urte sartu zen indarrean, baina oraindik ez da erabili ez eta 17N talde armatuarekin, horregatik Fernandori hau aplikatuko ez diotela pentsatzen da. Egitte badute Fernando izango zen lege honen ondorioak jasaten lehenengoa izango zen, Greziako historian muntai judizialik handienetarikoa parte izango zelarik. Bere aurkako probak polizia baten hitzak besterik ez dira, honek esan zuzenez "koktel molotov" batzuk botatzen ikusi zuen, ondoren jarraitu eta manifestaldian "istiluak eragiten" ikusi omen zuen. Esaten du, atxilotetaren momentuan, Fernando inguratzen zuten pertsonak poliziaren aurka egin zutela hau atxilotzea ekiditu nahian, poliziaren ustez beraiei "buruzagi" anarkista zenaren defentsan egin zuten hau. Guzti honen inguruan muntai mediatiko handia sortu da. ELEFZEROTOPIA (jarrera aurrerakoikoa) GIORGOS MARNELU kazetariaren bitartez, zabaltze nazionala duen egunkari honetako berri batean esan du Fernando "arriskutsua den anarkista euskaldun bat, internazionaliki bilatua eta nazioarteko mugimendu akrtaren buruzagia dela". Sostengu ekonomikoa eman nahi baduzue abokatuen kostuentzako kontu hau erabili dezakezue. La Caixa 2100-1676-89-0200051753.

175 ordu zintzilikaturik elkartasuna adieraziz



Suitzako kontsulatuan 175 ordu baino gehiago zintzilikatuta egon eta gero, ur faltaz eta beraiei bizitzarentzat berebiziko arriskuarekin, Evianen izandako G8ren aurkako protestetan polizia

Suitzarrak Can Masdeun bizitzen zen Martinen aurkako ekintza kriminala azaltzearen egindako ekintza hau amaitutzat eman dute bi gazte solidario hauek. Martin hobetzen jarraitzen du polizia batek bera zintzilikaturik zegoen autopistako zubi batean zegoen soka moztu eta 21 metro erori ostean,

Atxilotuak 11 independentista Borbonen aurka manifestatzeagatik



Konpostelan espainiar erregearen etortzearekin batera, NOS-Unidade Popularreko hainbat kideek Borbonen Galiziar egiten ari zen bisitaren aurrean ezker independentistaren gaitzespena adierazi nahi zuten, ilegalki atxilotuak izan ziren gaueko Ekainak 23ko gaueko 11ak paseak zirenean. Izugarriko dispositibo polizial batek Galiziar hiriburuko alde zaharreko perimetroaren zati handi bat mugatua eta okupatua zuen, horrela adierazpen zein manifestatze eskubideak jardutea ekidituz, NOS-Unidade Popularreko hamaika kide eraman zituzten bultzakada eta irainen artean, Platerias Plazatik komissaldegiraino, bertan Primera Linhako Idazkari Nagusia eta NOS-UPko Zuzendaritza Nazionalaren partaide den Carlos Morais beste atxilotuena taldetik banandua izan zen eta ondoan dagoen beste leku batera eraman zuten Poliziaren Esku Hartzeko VII. Unitateko 3 poliziek, bertan irainak eta heriotz mehatxuek aparte, aurrepian eraso izan zen bi poliziek eskuetatik heltzen zuten bitartean. Espainiar erregetza, demokraziaren eta Galiziaren nazio eskubideen aurkari maximo bezala, Konpostelara etorri da galiziar guztiei barre egitera. Gezur honek, Galiziak bere kostarekiko zein baliabideekiko subiranotasun ezak eta kapitalismoaren logika kriminalarekiko so stenguen ondorioz gure kostaldean gertaturiko izugarrikeriak ahaztea lortu nahi du.

Itoitz Ateraztua eta Birrindua. Herri hilak.



Itoitzekin Solidarioen Komunikatua: Erresistentziako 3 egunen balantzea. Gaur goizean Itoitzen zutik jarraitzen zuten hiru eraikinak eraitsi dituzte, Jakue, Bernatena eta Santa Eulaliako Eliza,

atzo 3 egun ez erresistentzian iraun zuten azkeneko hiru lagunak askatu ostean.

Prentsaurrekoan gogoratu egin da ekintza Itoitzekiko Elkartasuna taldeak antolatuta izan arren leku ezberdinetako lagun partaidetza izan duela, sentikortasun berean elkartuta: herri bizi eta amalurraren defentsan.

Itoizko urtegiaren kontrako borroka garapenkeria eta globalizazioak beharrezko dituen azpiegitura haundien aurkako borrokaren barruan kokatu da. Azken 4 egunetako balantze errepresiboa:

- Foru Zaingoak egindako atxilotetak: 28
- Guardia Zibilak egindako atxilotetak: 25

Borroka sarean

www.mediaberri.org
www.euskalherria.indymedia.org
www.stoptortura.org
www.kalegorria.net

www.antorcha.org
www.barcelona.indymedia.org
www.gaztesarea.org
www.segi-gazte.com
www.nodo50.org/izca

www.nodo50.org/resumen
www.nodo50.org/rashmadrid
www.boltxe.net
www.cnt.es/gipuzkoa/
www.galiza.indymedia.org

